

Txostena, foru agindu baten proiektua prestatzeko aldez aurreko kontsulta publikoan parte hartzeari buruzkoa. Foru agindu horren bidez arautuko dira Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean diren ikastetxeetan Haur Hezkuntzako etapari dagozkion irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 13. artikulua j) apartatuan dioenez, edozein herritarrek behar den denborarekin eskuratzen ahalko du herritarren parte-hartzea izan den proposamenei buruzko informazioa, egiaz eta eraginkortasunez parte hartzearen planen, programen eta parte-hartzearen menpe jartzen diren beste proposamen batzuen diseinuan, prestaketan, aldaketan, berrikuspenean eta ebaluazioan. Agindu hori betez, proposatzen den foru dekretu hau prestatzen hasi zela adierazi zen Gobernu Irekiaren web-orrian.

Foru aginduaren proiektua egin aurreko kontsulta publikoa jendaurrean egon da urtarrilaren 18tik otsailaren 7ra bitartean. Alegazioetarako gaitu den bidea posta elektronikoa izan da: soieduca@navarra.es. Interesdunaren nortasuna jaso da.

Jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

"Aldez aurreko kontsulta publikoa" txosteneko edukia, zeina fitxari erantsi baitzaio, ez da eragozpena izan alegazioak egiteko unean, kontsultaren xedea zein zen aski garbi baitzegoen aipatutako fitxaren izenburuan:

"Txostena, foru agindu baten proiektua prestatzeko aldez aurreko kontsulta publikoan parte hartzeari buruzkoa. Foru agindu horren bidez arautuko dira Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean diren ikastetxeetan Haur Hezkuntzako etapari dagozkion irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia."

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an. Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzuko zuzendaria, Pablo Arriazu Amat.

(Sinadura jatorrizkoan dago)